

Txorimaloaren kanta

Goio Ramos

Beitu, —esan zion txikiak nebari— txorimaloa.

Umeak baserriaren inguruan zebiltzan kuxkuxean, barruan gurasoak jabearekin etxearen salneurriaz ari ziren bitartean. Atzealdean zabaltzen zen zelaian aurkitu zuten txorimaloa, behaiala baratzte izanaren seinale. Hurbildu zirenean ohartu ziren panpinaren egora tamalgarriaz. Gorputza osatzen zuten makila sendoak estaltzen zituzten jantziek ez zuten halako izenik merezi, oihal puska zarpail eta lohiak ziren, neguko euriak zein udako bero kiskalgarriak aspaldi urratuak.

Baratzea, berriz, belar txarren erresuma zen, garai eta trinkoak, eroso ibiltzea eragozten zuten. Han izan ziren une batez, txorimaloari begira, honek lastozko kapelu zaharra jaso eta berbetan noiz hasiko zain, itxura batean. Txorimaloak, ordea, ez zuen ezer egin eta umeek ingurumaria ikuskatze aldera jarraitu zuten.

Baserriaren inguruan bira osoa egin ostean, berriro ere agertu ziren atzealdeko zelaian. Eta berriro ere txorimaloa begi aurrean. Zer egin ez zekitela, begirada zertxobait altxatu eta ganbarako leihoa ikusi zuten egurrezko teilatuaren azpian.

—Igoko gara?

Etxera sartu ziren neba-arrebak eta, isilka-misilka, ganbarara zeraman eskaileran gora egin zuten. Tramankulu eta kutxa zaharrez beterik aurkitu zuten. Zaratarik egin gabe, oroitzapen galduen azoka bitxi hartan hasi ziren kuxkuxean; arropa zaharrak, antigoaleko lanpara pa-

re bat, orturako lanabesak, munduko bola zahar bat, kontinente eta ozeanoak hauts geruza lodi batek estaliak zituen... eta bazter batean liburuz hornituriko apalategia. Handi eta sendoak ziren, larruztatuak, pelikuletako etxetzar misteriotsuetan ageri ohi direnen modukoak. Hautsez estaliak, gainerako guztia legez. Anderrek izenburuak irakurtzeari ekin zion. Gehienak erderaz zeuden, berak ulertzen ez zituen hizkuntzetan. Euskaraz bi baino ez, latinezko izenburua zuen *Lingua Vasconum Primitiae* eta eskutartean zerabilena, *Txerrenen mintzoa, Liburu debekatua*. Zer egin zezaketen Anderrek horrelako debeku baten aurrean? Zabaldu eta irakurri, jakina. Zalantzarik akaso?

—Liburu honetan agertzen dira sorginek eta aztiak erabili zituzten konjurioak eta —azaldu zion arrebari—. Badakizu, Ane, apo bihurtzekoak eta horrelakoak.

Anek ahozabalik entzuten zituen nebaren azalpenak, gurasoek ohe ertzean *Joxetxo Beldurbakoren* ipuina kontatzen zioten era berean, ikara eta jakinmina norgehiagoka biltzen zituen zirrarez.

—Ene, bada! Ene, bada! —esan zuen Anderrek begietan txinpartak ari zitzaizkiola—. Ezetz jakin zer azaltzen den atal honetan —arrebak ezetz egin zuen buruz- Zelan eman bizia txorimaloei!— gehitu zuen pozaren pozez.

Jeiki eta leihorantz jo zuen. Hantxe zegoen, ortuaren erdian, txorimaloa, jantzi urratuak haizetan dantzan. Neskatilaren albora itzuli eta belarrira xuxurlatu zion, «berpiztuko dugu gure txori-

maloa, arrebatxo?». Anek hortzikara bat nabaritu zuen bizkarrezurrean gora, ikararen edota emozioaren ondorioa ote zen ondotxo ez zekiela.

Arrebaren erantzuna itxaron gabe, hasi zen aspaldi-aspaldian Txerrenen eskuak idatzitakoa irakurtzen.

—«Izan zen garai bat, argia eta iluna bereizi aurretik, non lurraren gainean zen orok bizia baitzuen. Gizon eta emakumeek euren eskuz sortzen zituzten irudiek bizi-hatsa izaten zuten. Egun batean, urrutiko egun batean berriz, Jainkoak, izaki hilkor koitaduek hainbeste gurtzen zuten Jainkoak berak zigortu eta ahalmena kendu egin zien.

Neronek, ordea, Txerren Handiak, badut horren berri. Aski dira ahanzturaen putzu sakonean hondoraturiko ele hauek ahoskatzea:

*Txorimalo, Ixikimalo,
egurra haragi, egurra bihotz,
has birikak, orain arnaska.»*

Neba-arrebak isilik geratu ziren, zer gertatuko zain. Haizea firin-faran hasi zen ganbaran barrena. Salto batez jaiki eta leihorantz egin zuen Anderrek. Hantxe zegoen txorimaloa, ortu erdian lurrari lotuta, jantzi urratuak haizetan dantzan. Egurrezko gorputza, egurrezko bihotza.

—Kaka zaharra!

Anek lasaitu ederra hartu zuen. Beldurrezko ipuin bat baino ez zen izan. Bai horixe, nebaren ipuin bat bera beldurtzeko.

—Ander, Ane, hor goian zabizie? —amatxoren ahotsa zen.

Liburua apalategian utzi eta arrapala-



ROGER OLMOS.

dan jeitsi ziren. Gurasoak bakarrik zeuden. Etxearen jabea joana zen.

—Zertan ibili zarie ganbaran?

Ander eta Anek elkarri begiratu zioten. Egia esan edo ez, duda-mudatan. Anek hitz egin zuen.

—Denborapasean.

Kanpora irten eta autora joan ziren. Barruan zeudela ea baserri hura erosiko zuten galde egin zieten gurasoei.

—Ez dakigu bada, —esan zien amak— lar garrestia da guretzako eta jabeak ez dau merketu gure, antza.

Aitak motorea piztu eta autoa iblitzten hasi zen. Ezkerretara jo eta errepidera

zeraman bideska hartu zuen. Baserri osoa inguratu zuten. Atzealdetik pasatzean ortua ageri zitzaizen begibistan. Umeak zur eta lur geratu ziren. Ahozabalik. Ortuaren erdian, belar txarren artean ez zegoen txorimaloren inolako arrastorik. Ez-ulertze keinuak, harridura aurpegiak, oilo-ipurdia.

Aitak eskumatara jo zuen bide nagusira irtetzeko. Gurasoak, euren kontuetan buru-belarri, ez ziren ohartu seme-alabak erabat zurbildu egin zirela. Atzerako ispilutik so egin izan balute, bi aurpegi itxuragabetu aurkituko zituzten, lau begi ezin zabalduago kristalatik ha-

rago beha. Ez zuten egin, aitzitik, eta horregatik aurrera jarraitu zuten lasailasai, seme eta alabaren beldur-ikaraz erreparatzeke.

Hantxe, bide nagusira sartu aurretik egin beharreko *stop* adierazten zuen ikurraren ondoan baserri gazte bat zegoen harrizko hesi txikian eserita. Autoa hurbiltzean, diosal egin zien eskuz barrukoei, irribarre zabala ezpainetan. Gazte hura inguru haietako baserri bat zen, besterik ez, ikusiko zuen edonorentzat. Ez, ordea, umeentzat. Ez behintzat, jantzi urratu eta lastozko kapelu zahar harekin.